# KUDEAKETA PLANA

# 2016-2019

Bizkaia

gufe-ifas

# HELBURUA

**Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari (GESari) atxikitako zuzenbide publikoko erakunde autonomoa da.**

**Haren helburua da GESak gomendiotan emandako pertsona guztiei arreta integrala eta pertsonalizatua ematea, batez ere beharrizan konplexuak dituzten pertsonei. Horretarako, zerbitzu eta gizarte-baliabide berezi eta kalitatezkoak ematen eta bermatzen ditu erabiltzaileei eta beren familiei bizitza duina izaten laguntzeko. Modu horretan, haien eskubideak erabiltzearen eta ahalmenak garatzearen aldeko ingurunea sustatzen da.**

**Horrenbestez, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea herritarren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko bidea da. Horretarako, erantzukizun sozialeko eta lurralde-aberastasuneko motor gisa lan egiten du, eta Bizkaiko gizartearen garapen integrala, bidezkoa, solidarioa eta jasangarria sustatzen du.**

# IKUSKERA

**GUFEk zerbitzu berritzaileak, kalitatezkoak eta erantsitako balio handikoak eskaini nahi ditu, bai gizarte arloan, bai ekonomikoan. Horretarako, eredu iraunkorra erabiliko da.**

**Hauek dira gure helburuak:**

- **Sektorean liderrak izatea praktika on eta berritzaileen sustatzaile eta katalizatzaile gisa, eta kalitatean, jasangarritasunean eta asistentziaren berrikuntzan erreferentzia izatea.**
- **Gizarte-balio eta -lidergoko eremu batean zentratzea.**
- **Erantzukizun sozialeko eta lurralde-aberastasuneko motor gisa lan egitea.**

# HAINBAT GAKO

- Horizontalki lan egiteko ahalmena
- Zeharkako erronkei aurre egiteko proaktibotasuna
- Baliabideak, prestakuntza eta estrategiarekin bateratutako lidergoa bateratzea
- Barne- eta kanpo-komunikazioa
- Administrazioa modernizatzea
- Asistentzia modernizatzea
- Ekipamendua modernizatzea

# KUDEAKETA PLANA

## POSIZIONAMENDUA

- Zentroaren eredu berria ezartzea
- Kudeaketa-eredua aldatzea, kudeaketa aurreraturako bidean

## HELBURUAK

- ZENTROEN SARE MODERNOA, BERRITZAILEA ETA KALITATEZKOA OSATZEA, ERABILTZAILEENGAN ETA BEREN FAMILIETAN ZENTRATUTAKOA
- KONPROMISO ETIKOA ETA GARDENTASUNA SUSTATZEA
- BARNE TREBAKUNTZEN GARAPENA INDARTZEA
- KUDEAKETA EREDUA ALDATZEA; MODU HORRETAN, HOBEKUNTZA, BEHARRIZANEN PLANIFIKAZIOA, ERAGINKORTASUNA ETA BALIABIDEEN ERABILERA ZENTZUZKOA ETA JASANGARRIA SUSTATUKO DIRA

# LEHENTASUNEZKO JARDUERAK

| HELBURUA | HELBURU OPERATIBOA | JARDUKETA |
|---|---|---|
| ZENTROEN SARE MODERNOA, BERRITZAILEA ETA KALITATEZKOA OSATZEA, ERABILTZAILE ETA BEREN FAMILIETAN ZENTRATUTAKOA | ZENTROEN EREDU BERRITZAILEA GARATZEA, PERTSONETAN ZENTRATUTAKOA - SMART SOZIALA | Arkitektura emozionala ezartzea zentroetan |
| | | Erlazio-eredu komunitario berria garatzea zentroetan |
| | | Jardueren programa sozial berria diseinatzea eta zabaltzea zentroetan. |
| | | Asistentziaren berrikuntza-sareen eredua definitzea eta ezartzea GUFEko zentroetan. |
| | | Irisgarritasuna pixkanaka hobetzea zentroetan. |
| | | Gizarte-harrerako eredu eta informazio-eredu berri baten garapen pilotua zentroetan. |
| | ERABILTZAILEEI ETA BEREN FAMILIEI EMANDAKO ARRETA HOBETZEKO TEKNOLOGIA BERRIAK EZAR DAITEZEN BULTZATZEA | Asistentziaren kudeaketarako aplikazio berria garatzea eta ezartzea |
| | | Asistentziaren kudeaketarako gauzen Internet ezartzea |
| | ASISTENTZIAREN KALITATEARI BURUZKO ESTANDARRAK DEFINITZEA ETA EZARTZEA | Asistentziaren kalitateari buruzko estandarren eredua berrikustea. |
| | | Zerbitzuen kartak zabaltzea. |
| | | Asistentziaren kalitateari buruzko ziurtagiri berriak jasotzea. |
| KONPROMISO ETIKOA ETA GARDENTASUNA SUSTATZEA | ASISTENTZIAREN ETIKA BULTZATZEA | Etikako batzorde profesional bat definitzea eta abian jartzea - Etikagune |
| | | Iradokizunak, kexak eta erreklamazioak egiteko prozesua optimizatzea. |
| | GOBERNU APROPOSA ETA ANTOLAKUNTZAREN GARDENTASUNA BULTZATZEA | Negozio-arriskua kontrolatzeko eredu berria garatzea eta, ondorioz, berme juridikoa hobetzea |
| | | Gardentasuna hobetzea |
| BARNE TREBAKUNTZEN GARAPENA INDARTZEA | PERTSONEN PROFILA ZERBITZUAREN BEHARRIZANETARA EGOKITZEA | Garapen profesionalari eta etorkizuneko erronkei bideratutako prestakuntza-plana |
| | TENPORALTASUNA MURRIZTEA | EPE |
| KUDEAKETA EREDUA ALDATZEA; MODU HORRETAN, HOBEKUNTZA, BEHARRIZANEN PLANIFIKAZIOA, ERAGINKORTASUNA ETA BALIABIDEEN ERABILERA ZENTZUZKOA ETA JASANGARRIA SUSTATUKO DIRA | ADMINISTRAZIOA MODERNIZATZEA | GUFEko Foru Aldundiaren Informatika Plana kudeatzea, ikuspegi estrategikoarekin |
| | | GUFEko Administrazio Elektronikoa ezartzea |
| | ERAKUNDEAK SORTUTAKO INFORMAZIOAREN AZTERKETA ETA USTIAPENA GARATZEA | Gizarte-kudeaketarako informazio-sistema ezartzea |
| | | Azken belaunaldiko asistentziaren segimenduari lotutako ereduak |
| | ESTRATEGIA ZABALTZEKO KUDEAKETA BIDERATZEA | Erakundearen estrategiari erantzuten dioten aurrekontuak eratzea. |
| | HITZARMENEN KUDEAKETA OPTIMIZATZEA | Haurtzaro eta nerabezarorako hitzarmenen kalitatearen kontrolari eta segimenduari lotutako eredu berria ezartzea. |
| | | Hitzarmenetan iruzurra kontrolatzeko eredua definitzea eta ezartzea |
| | KUDEAKETA PROZEDUREN ERAGINKORTASUNA HOBETZEA | Kostuen kontrolari eta zentroetako asistentziaren kalitateari buruzko eredua definitzea |
| | | Erosketa-prozesua - erosketa zentralizatuak optimizatzea |
| | | Nominaren prozesua optimizatzea. |
| | | Erabiltzaileen arropa kudeatzeko prozesua optimizatzea. |
| | | Absentziak kudeatzeko prozesua optimizatzea |
| | | Urteko aurrekontu-amaierari buruzko prozesua optimizatzea |

**www.ifas.bizkaia.eus**

Bizkaia
gufe-ifas